



LESAKA

A Den If

**BANDOA**

**ERAIKINEN EBALUAZIO TXOSTENA**

Azaroaren 12ko, 108/2014 Foru-Dekretuak Eraikinetako Ebaluazio Txostena erregulatzeko (EET).

Honen arabera, 2013ko abenduaren 31ean, bizileku tipologia kolektiboa duten 50 urtetako edo gehiagoko eraikinek, eraikinaren ebaluazioa egin beharko dute, 2018 urteko lehen eguna baino lehen, dagokion txostena eduki beharko dutelarik.

Jabe batek edo jabe-komunitate batek eman behar dituen pausoak EET bat egiteko hurrengoak dira:

1. Teknikari kompetente bat kontratatzea.
2. Teknikari kompetenteak txostena egingo du baliabide informatikoak erabiliz eta EET horren dokumentu digitalerako sarbide-kode bat emango dio jabeei edo jabe-komunitateei. Halaber, jabeek edo jabe-komunitateek aipaturiko EET horren kopia bat eska dezakete paperezko euskarrian.
3. Jabeek edo jabe-komunitateek EET-ari dagokion sarbide-kodea eman beharko diote eraikina kokatzen den Udalari. Udalak txostenaren inprimatutako bertsioa onartzen badu, honek, izenpetzen duen teknikariaren sinadura autografoa beharko du.
4. Udala izando da EET-a hartzeko eta hura Nafarroako Eraikinen Ebaluazioko Erregistro Orokorrean sartzeko arduraduna.

Lesakan, 2017ko urriaren 26ean

Alkatea,

Jose Luis Echegaray Andueza